

MUSIKA

BERA

- **Maixa ta Ixiar.** 00:00etatik aurrera.

BERANGO

- **Alaitz eta Maider.** Plazan, 23:00etan.

BERMEO

- **Abendmusik laukotea (XVIII. Mendeko ganbara musika).** Andra Mari elizan, 20:00etan.

DONOSTIA

- **Euskal Herriko Gazte Orkestra.** Andra Mariren Basilikan, 20:00etan.
- **Banda La Donostiarra.** Bulevardeko kioskoan, 20:00etan.
- **Leioako Musika Banda.** Urdaneta kalean, 20:00etan.
- **Tirri-Tarra.** Kursaalako terrazan, 20:00etan.
- **Ugarte anaiak (txalaparta), Ainhoa Izagirre (alboka), Amaia Intxauburu (panderoa), eta Edurne Iturbe eta Andoni Elorza (trikitixa).** Konstituzio plazan, 20:00etan.
- **Escola de Gaitas e Danzas Galegas Trisquele.** Igeldoko plazan, 20:00etan.
- **Jazzle Big Band.** Aquariumgo terrazan, 20:00etan.
- **Juantxo.** Etxekalten.

GASTEIZ

- **Jaitxo taldea.** Prado parkean, 19:00etan.
- **Eltziegoko gaiteroak eta Gasteiz Latin Band.** Aihotz plazan, 19:30etatik aurrera.
- **Joselu anaiak.** Geltoki plazan, 23:00etan.
- **Akelarre.** Aihotz plazan, 23:30etan.
- **La Oreja de Van Gogh.** Foru plazan, 00:00etan.
- **Izotz.** Txosnetan, 00:00etan.
- **Acheson.** Probintzia plazan, 00:30etan. Salsa eta merengea.
- **Constelación.** Arka plazan, 00:00etan.
- **Perello Big Band Orkestra.** Espainia plazan, 00:30etan.
- **Segismundo Toxicomano.** Bueruileria plazan, 01:00etan.

GETARIA

- **Etzakit.** Herriko frontoian, 23:00etan.

ZANGOZA

- **Nyati (Tanzania), Nipa.** Gurutze plazako institutuan, 21:00etan.

ANTZERKIA

BILBO


- **Cosas de la vida.** Ayala Antzokian, 20:30etan.

DONOSTIA

- **Trampa Mortal.** Paco Valladares aktorearen eskutik, Antzoki Zaharrean, 20:00etan eta 23:00etan.

ERAKUSKETAK

'Sare artetik begira' erakusketa • Gernikako Euskal Herria museoan, abuztuaren 29a arte zabalik



TXOMIN TXUEKA

Logela ilunetik/ argitara jaio/ borobil batetikan/ begiratuz jaio/ borobil borobilik/ ez da zer arraio!/ Itsasoaz pentsatuz/ jo du hainbat saio.../ azkenean kopeta/ itsasotu zaio. (Andoni Egaña).

Txomin Txueka

• ARGAZKILARIA •

«Herri honek kulturaren du erronka»

«NAHIZ-TA mundua baka-rra izan aldatzen du imajina **sare artetik** begiratuta ez da ikusten berdina». Kopla hori jarri zion Andoni Egaña Txomin Txuekaren argazki bati, eta beste 30 argazkiri ere bertsoak jarri dizkio bertsolari zarautzar-rrak. Proiektu horren nondik norakoak azaldu dizkigu Txuekak.

■ **Nola sortu zen erakusketa hau egiteko ideia?**

Neu getariarra izanik, beti nuen gogoia arrantzaleei buruz zerbait egiteko. 1997ko udan 25 egunerako joan nintzen itsasora, atun bila, Atlantikoko erdialdera eta Irlandako kostetara. Andoni Egañari erakutsi nizkion han atera nituen argazkiak, eta, aurretik horrelakorik ezer egin ez zegoenez, argazkiei bertso-

ak jartzea proposatu nion, eta prest agertu zen. Andonik, gainera, oso ondo eza- gutzen du itsasoko giroa.

■ **Zein da zure hurrengo proiektua argazkilari- tzaren munduan?**

Alde batetik, erakusketa hau zabaldu nahi dugu. Gernikatik Gasteizera eramango dugu gero, handik Iparraldera eta Nafarroara. Liburu baterako ere eman- go luke. Bestetik, hemen- dik bi egunera Palestinara noa, Gazara, eta ikusiko dugu han zer-nolako argaz- kiak ateratzen ditudan. Etxean, bestalde, herri honek erronka kulturaren duela uste dut, eta euskal artistekin zerbait egitea espero dut.

Urtzi Urkizu
DONOSTIA

grafikoa. Artekon, abuztuaren 7a arte.

► **XX. Mendeko Euskal Pintura.** Kutxako Garibai aretoan, irailaren 5a arte.

► **Inprimatze digitaleko erakus-**

keta. Jon Egurenen lanak, Egiako Beti Boga tabernan.

► **Lucio Muñoz, 1950-1998.** Atzera-begirako erakusketa San Telmon, irailaren 12a arte.

► **Hotsaren espazioa / Begira-**

daren denbora. Erakusketa kolektiboa Koldo Mitxelena, irailak 25a arte.

GARAPE

- **Ekialdetik Mendebaldera.** Stephane Duroyren lanak, Enkarterrietako museoan, irailaren 30a arte.

GASTEIZ

- **Padpolia.** Javier Nevadoren lanak, Zuloa erakusketa aretoan, abuztuaren 13a arte.

GETARIA

- **Gabriel Iribar Alberdiren pintura erakusketa.** Kultur etxean, abuztuaren 13a arte.

GORLIZ

- **Bizkaiko Elkarte Artistikoa- ren erakusketa kolektiboa.** Erakusketa aretoan, 19:00etatik 21:00etara zabalik.

HONDARRIBIA

- **Saskigintza Euskal Herrian.** Zuloaga etxean, abuztuaren 15a arte.

LEGAZPI

- **Langileak Jauregian!** Argazki erakusketa, Bikuña jauregian, irailaren 30a arte.

MIARRITZE

- **Latinoamerikako arte garai- kidearen bilduma, Caracas- ko Arte Ederretako museoak utzia.** Berllevueko erakusgunean, urriaren 3a arte.

ORIO

- **Begoña Zalduaren pintura era- kusketa.** Kultur etxeko areto nagusian, abuztuaren 15a arte zabalik.